

euskararen berripapera

2003



Europako Gutunaren lorpenak eta desafioak

Apirilaren 20an eta 21ean, Bilboko Guggenheim museoan, "Eskualdeetako edo Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Gutuna: Lorpenak eta Desafioak" jardunaldiak egin zituzten. Gutunak 10 urte bete ditu eta horixe izan zen jardunaldiak egiteko arrazoia.



Argazki Press

Terry Davis Europako Kontseiluko idazkari nagusia.

Antolatzaileak Europako Kontseilua, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskal Herriko Unibertsitatea izan ziren. Europako Gutunak hamar urteko epean egindako lorpenez eta aurrera begira dituen erronkez aritu ziren adituak bi egunez. Euskararen egoeraz mintzatu ziren, baita Europako beste hizkuntza gutxituen egoeraz ere.

Europako Gutuna Espainiako Gobernuak 1992. urtean sinatu zuen eta 2001. urtean berretsi. 2009. urte hasieran Europako Kontseiluak Gutuna Espainiako estatuan zenbateraino betetzen den egiaztatzeko bigarren ebaluazioaren txostena ezagutarazi zuen. Txostena prestatu zuen Adituen Batzordeak Katalunia, Galizia eta Euskadi goraiatu zituen abian dituzten hizkuntza-politikengatik. Aldiz, defizitak aurkitu zituen Espainiako estatuko administrazioan, hala nola, justizia administrazioan, sozietate estatuetan eta zerbitzu publikoen enpresetan eta estatuaren edo edozein ente publikoren mendeko hedabideetan.

Juan Jose Ibarretxe jarduneko lehendakaria jardunaldien inaugurazio ekitaldian izan zen eta zenbait autonomia erkidego beren hizkuntzen normalizazioaren alde egiten ari diren ahalegina nabarmendu zuen, bereziki Euskadi, Katalunia eta Galizia. Euskarari dagokionez, eman den aurrerapausoa nabarmena izan dela gaineratu zuen.

Hona hemen jardunaldietan parte hartu zuten hainbat adituren adierazpenak:

- Terry Davis Europako Kontseiluko idazkari nagusia: «Hizkuntza gutxituak gure aniztasunaren adierazle dira, ez mehatxu». «Hizkuntza gutxituak subiranotasun nazionalaren eta herrialdearen osotasunaren barruan babestu behar dira. Nortasun kulturekin lotutako auzietan elea-niztasuna aitortzeak tentsioak gutxi ditzake».

- Lluís Maria de Puig Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarreko presidentea: «Europako 37 hizkuntza daude mende honetan desagertzeko arriskuan. Hizkuntza bat galtzea europarren porrot kolektiboa da». «Eurogutuna indarrean jartzea ona izan zen. Arrakasta izan du, baina ez guztizko arrakasta, herrialde batzuek ez dutelako sinatu. Frantziak esan zuen hizkuntza gutxituei eskubideak aitortzeak hizkuntza horiek ez dakizkiten frantziarren aurka jardutea ekarriko lukeela».

- Manuel Lezertua, Europako Kontseiluko legelaria: «Eurogutuna aitzindaria da munduan hizkuntza-eskubideen babesean eta Europan hizkuntza-aniztasunaren aldeko printzipio nagusi bat ezarri nahi du. Bere xedea eremu urriko hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen hiztunak babestea da eta hizkuntza ezberdinen hiztunen arteko bizikidetzat antolatzea. Hori horrela izanik, nire ustez, horren ondorio zuzena hauxe da: Eurogutuna ezin da erabili babestu nahi dituen hiztunen aurka eta ezta euskara ez ikasteko aitzakia gisa ere».

- Sigve Gramstad, Euroituneko Adituen Batzordeko presidenteordea: «Jarraipena egiten hasi ginenean, konturatu ginen udal batzuetan euskararekiko jarrera ezkorra zegoela, baina gerora hobetu egin zen hori. Nafarroan ere joera positiboa egon da, azpiegituren sorrerari dagokionez batik bat, eta eremu mistoan batez ere» ●

Hogeita bost urtetan, **300.000** hiztun irabazi ditu euskarak EAEn



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak IV. Mapa Soziolinguistikoa aurkeztu du. Ikerketan, EAEn egoera soziodemografikoa, hizkuntza-gaitasunaz, hizkuntza-transmisioaz eta etxeko euskararen erabileraz datu andana jaso da.

IV. Mapa Soziolinguistikoa 2006ko Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikan bildutako datuak ditu oinarritzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoa hartzen du aintzat. Datuen ardura EUSTAT erakundearena da, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak datu horien ustiaketa egin du.


Mapa Soziolinguistikoa Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen bilakaeraren berri izateko ikuspegi zabala ematen digu: hizkuntza-gaitasunaren kasuan hogeita bost urtekoa, lehen hizkuntzarenean hogeikoa eta etxeko erabilerarenean hamabostekoa.

Hogeita bost urtetan, 300.000 hiztun irabazi ditu euskarak EAEn, eta egun, adin talderik gazteenak dira euskaldunenak, laurogeiko hamarkadaren hasieran ez bezala.


IV. Mapa Soziolinguistikoko hainbat datu

- EAEn bost urte edo gehiagoko 755.640 elebidun (% 37,5) daude, 349.691 elebidun hartzaile (% 17,3) eta 910.926 erdaldun elebakar (% 45,2).
- Lurraldeen datuak aztertuz gero, gipuzkoarren erdia baino gehiago (% 53,3) elebidunak dira (345.164 pertsona). Bizkaian ia hirutik bat (% 31,3) dira elebidunak (338.228 pertsona). Azkenik, Araba da elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena duena. Lautik bat (% 25) dira elebidunak (72.248 pertsona).
- Hiriburuei dagokienez, Gasteizko elebidunak % 24,5 dira. Bilakaerari dagokionez, azpimarratzen da 1981ean % 3,5 besterik ez zirela elebidunak Gasteizen. Bilbon 80.903 elebidun bizi dira, 2006ko datuen arabera. Elebidun gehien duen hiria bilakatu da, beraz. Bilboko biztanleriaren % 24,2 da elebiduna. 1981ean Bilboko elebidunak % 6,4 ziren. Azkenik, Donostia da elebidunen ehunekorik handiena duen hiriburua (% 40,5). Azken 25 urteotan bikoiztu egin du ehunekoa (1981ean % 21,4).
- Adinari begiratu gero, elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago gaur egun: 30 urtetik beherako gazteen % 62 elebidunak dira dagoeneko, hau da, 1981ean baino 43 puntu gehiago (1981ean 30 urtetik beherako elebidunak % 19 ziren). Are handiagoa da, ordea, 15 urte baino gutxiagoko elebidunen ehunekoa (% 75). Kontuan izan behar da 1981ean 15 urtetik beherako elebidunak % 20 zirela.
- Etxeko erabilera ia ez da aldatu azken 15 urteotan, seme-alabekiko erabilera izan ezik. EAEn biztanleen % 21,4 dira euskara etxean gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Elebidunak bakarrik kontuan hartuz gero, etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunak % 53 dira.
- Gazteenak eta zaharrenak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak ●


Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE 2006 (%)



Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE 2006 (%)



Hizkuntzaren erabilera etxean, lurraldeka. EAE 2006 (%)





Albert Bastardas Boada

Soziolinguistika eta hizkuntza-aniztasuna


Hizkuntza-forma eta -kodigoak bestelako objektuei ekosistemikoki lotuta bizi dira: gizabanakoek errealitateari buruz dituzten ideiak, forma eta kodeei ematen dizkieten gizarte-esanahiak, gizabanakoen sailkatze sozio-ekonomikoa, talde-errepresentazioak, egoera politikoak, etab. Morinek esango lukeen bezalaxe, hizkuntza-formak gizarte eta kulturen daude; hauek, halaber, hizkuntza-formetan daude.

Hizkuntzak, hortaz, biologia-espeziaren antzera, ez dira hutsean bizi; haatik, ekosistema kultureko beste osagaiekin erabat integratu eta egokituta bizi dira.

Albert Bastardasek idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.



Argitalpenak



Motivación y segundas lenguas

Lorenzo, Francisco



Itun berri baterantz. Googeta irekiaren ondorengo txostena

Euskararen Aholku Batzordea



Azterlana

Hizkuntzaren erabilera emakumeen eta gizonen arteko harremanetan: eguneroko testuinguak eta testuinguru judizialak

Ortiz Ansola, Garbiñe

Zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzko **Dekretua** onartu du Eusko Jaurlaritzak

Zinpeko itzultzaile eta interpreteak habilitatzeaz gain, lanbide horretarako gaituak daudenen erregistroa osatuko da.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitaziorako Dekretua onartu zuen. Dekretu horren xedea da, batetik, zinpeko itzultzaile eta interprete gisa aritu ahal izateko gaituntza profesionala arautzea, bai euskaratik beste hizkuntzetarako eta bai beste hizkuntzetatik euskararako itzulpen eta interpretazio lanetan jarduteko, eta, bestetik, lanbide honetarako gaituak daudenen erregistroa osatzea.

Otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuak Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala sortu eta arautu zuen eta harrezkero, zerbitzu hori arduratu da euskararako eta euskaratik gaztelaniarako itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa ziurtatzeaz. Egun, ordea, eskaria areagotu denez, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzearen, eginkizun hori profesional prestatu eta habilitatuek ere bete ahal izatea komenigarria

dela ikusi da, hau da, euskarako zinpeko itzultzaileak habilitatzea, eremu publikoan zein pribatuan jardun dezaten. Horrek, euskararen erabilera erraztuko du lege, administrazio nahiz ekonomi arloetako agirien prozeduretan, hauek inoiz euskara ofiziala den lurraldeetatik kanpokoak direnean edo bertan eragiten dutenean.

Zinpeko itzultzaile edo interprete izateko habilitazioa lortzeko lau bide egongo dira: Eusko Jaurlaritzak antolatuko dituen probak gaindituta; Interpretazio eta Itzulpengintzako unibertsitate ikasketak izan eta praktiketan egindako ordu kopuru jakin bat egiaztatuta; Espainiako Kanpo Arazoetarako Ministerioaren titulua izanda edota esperientzia profesionala egiaztatuta.

Bestalde, lanbide horretarako gaituak dauden itzultzaile eta interpreteen erregistroa osatuko da ●

laburrak

Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak



20 hiztegi terminologiko berri



Unesco Etxeko eta Munduko Ondarearen Unesco Katedrako Amarauna ikerlari-taldeak *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* ikerketa burutu eta plazaratu du. 2006-2008 epealdian burututako ikerketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako diru-laguntzari esker gauzatu ahal izan da. Guztira Unesco Etxeak 212.000 euro jaso ditu.

Ikerketak bi helburu nagusi izan ditu: batetik, erdaldunen euskararekiko uste eta jarrerak zeintzuk diren eta elebitasunerako mesedegarri eta oztopatzaile diren aurreiritziak arakatzea; eta bestetik, jarrerok euskaldunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko 18-55 urte bitarteko biztanlerian zein maiztasunekin ageri diren antzematea. Datu kualitatiboak eztabaida-taldeen bidez jaso dira; datu kuantitatiboak, berriz, galde-sortaren bidez.

Liburuak ikerketa kualitatiboan jasotako ideia guztiak eta galde-sortaren emaitza kuantitatiboak bildu ditu. Horrez gain, liburuan garatzen diren gaiekin lotutako hausnarketak eta eztabaidetan parte hartu duten hainbaten aipuak ere jaso ditu.

Ikerketan bildutako hainbat datu:

- % 55,5 euskararen mundutik «hurbil» sentitzen da eta % 24,9k horrekiko interesa du. % 10ek baino gutxiagok, ordea, adierazten du ez duela euskararekiko interesik.
- Ikerketan parte hartu duten gehienek argi dute euskara «gure» erantzukizuna dela.
- Erdaldun asko (ikerketa kuantitatiboko % 65,70) bere bizitzaren momenturen batean euskara ikasten saiatu da.
- «Ezin da euskara galtzen utzi» edota «ados nago euskara bultzatzearekin» gisako baieztapenetan oso adostasun handia dago ●

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN, 1998) terminologiaren planingintza egitea agindu zuen, besteak beste. Hori betetze aldera, bi ekimen garrantzitsu burutu zituen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS). Batetik, 2001ean, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa sortu zuen. Bestetik, 2002an, Terminologia Batzorde-atala eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen baitan. Terminologia Batzorde-atalak 2008an egindako lanaren emaitza aurkeztu berri du HPSk. 2008an, 21 hiztegi terminologiko onartu zituen. Horietako 20 aurkeztu berri dira. 21. hiztegia Ingurumen Sailaren ekimenez egindakoa da. 20 hiztegiak UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin ditu.

Hona hiztegiak: 1) Jatetxeak 2) Turismoa 3) Altzariak 4) Arropa-dendak 5) Elektrizitate-dendak 6) Errotuluak 7) Hipermerkatuak 8) Kirol-materialak 9) Merkataritza-guneetako errotuluak 10) Bulego-materiala 11) Oinetakoak 12) Norbere irudia, ile-apaindegiak eta estetika 13) Iturgintza 14) Lanbideak 15) Laburtzapenak 16) Soziolinguistika 17) Bulegotika 18) Irudia, ikus-entzuzkoak eta soinua 19) Toki administrazioa 20) Datu Babesa.

Hiztegiez gain, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) egindako *Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena (FNS)* eskuliburuaren euskarazko bertsioa onartu du. Lan hori, hiru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako gizarte gaietako departamentuek bultzatu dute eta UZEIk eraman du aurrera. Hiztegi guztiak EUSKALTERMen integratuta egongo dira. Egun, 457.066 termino biltzen ditu hainbat hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA Viceconsejería de Política Lingüística



DK-00023
100gr.ko Cyclus Print
paper birziklatuan
inprimatua